UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO.

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohikoa.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2020.12.23.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan.

Organo: *Pleno.*
Sesión: *ordinaria.*
Convocatoria: *primera.*
Día*: 23.12.2020.*
Hora: *19:00 horas de la tarde.*
Lugar: *Salón de Plenos del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka.*

Bertaratuak:
Alkatea: Ladis Satrustegui Alzugaray jn.
Zinegotziak:
Maitane Rodriguez Etxabide and.
Iban Garro Alzuri jn.
Maider ArrietaTapia and.
Iratxe Batiz Barzena and.
Mattin Etxabide Gartzia jn.
José Luis Echegaray Andueza jn.
Ione Fagoaga Echarte and.
Iban de Prado Echepeteleku jn.
Esteban Irazoqui Irazoqui jn.
Jose Maria Portu Ochoteco jn.

Asistentes:
Alcalde: *D. Ladis Satrústegui Alzugaray.*
Concejales:
Dña. Maitane Rodriguez Etxabide.
D. Iban Garro Alzuri.
Dña.Maider Arrieta Tapia.
Dña.Iratxe Batiz Barzena.
D. Mattin Etxabide Gartzia.
D. José Luis Echegaray Andueza.
Dña. Ione Fagoaga Echarte.
D. Iban de Prado Echepeteleku.
D. Esteban Irazoqui Irazoqui.
D. José María Portu Ochoteco.

Idazkaria: M. Jose Larrayoz Ariztegui and.

Secretaria: *Dña. M. José Larráyoz Ariztegui.*

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago udalaren web orrian zintzilikatzeko.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal.

Alkate jaunaren aginduz bilkura hasi da, eta, deialdiaren ordenari jarraituz, ondoko gai hauei buruz aritu dira:

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION

1.- APROBACIÓN DEL ACTA

LESAKAKO UDALA | Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (Nafarroa) | Tel. 948 637 005 | udala@lesaka.eus | www.lesaka.eus

AKTAREN ONESPENA.

Osoko Bilkurak, aho batez, onartu du, 2020ko azaroaren 26ko akta.

2.-2021. URTERAKO UDALAREN AURREKONTUA OROKORRA: HASIERAKO ONESPENA.

Espedientean ageri da udal-aurrekontu orokor eta bakarraren proiektua. Era berean, kontuhartzaileak emaneko txostena 2020ko abenduaren 15ean eta idazkariak abenduaren 18an emanikoa ageri dira.

Gaia aztertu ondoren, eta hura amaituta, EH Bilduko sei zinegotzien aldeko botoarekin eta Geroa Bai-ko bost zinegotzien abstenzioarekin, erabakitzen da:

1.) Hasiera batean onestea Lesakako Udaleko 2021. urterako aurrekontu orokor eta bakarra, baita hura betearazteko oinarriak ere. Gastuak eta diru-sarrerak 2.980.550,00 euroko kopuruan orekatuta daude. Andra Mari Zahar-Etxea Erakunde Autonomoarenak, berriz, 776.000,00 euroko kopuruan orekatuta daude.

2.) Espedientea udal-idazkaritzan ikusgai edukitzea, hamabortz egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki-taulan iragarri eta gero, herritarrek edota interesdunek espedientea aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

3 – UDALEKO ETA ANDRA MARI ERAKUNDE AUTONOMOKO 2021. URTERAKO PLANTILA ORGANIKOAK. HASIERAKO ONESPENA.

Espedientean dagoen dokumentazioa

CORRESPONDIENTE A LA ULTIMA SESION.

El Pleno aprueba, por unanimidad, el acta de la sesión celebrada el día 26 de noviembre de 2020.

2.- APROBACION INICIAL DEL PRESUPUESTO GENERAL DEL AYUNTAMIENTO PARA EL AÑO 2021.

Consta en el expediente el proyecto del Presupuesto General Único del Ayuntamiento. Figuran en el mismo el informe emitido por el interventor con fecha 15 de diciembre de 2020 y por la secretaria el día 18 de diciembre de 2020.

Se debate el asunto y finalizado el mismo, con el voto a favor de los seis concejales de EH Bildu y la abstención de los cinco concejales de Geroa Bai , se acuerda:

1.) Aprobar inicialmente el Presupuesto General Único del Ayuntamiento de Lesaka para el año 2021, así como las Bases de Ejecución del mismo. Sus gastos e ingresos están nivelados en la cantidad de 2.980.550,00 euros. Por su parte los del Organismo Autónomo Residencia Andra Mari están nivelados en la cantidad de 776.000,00 Euros.

2.) Exponerlo en la Secretaría municipal por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen oportunas.

3 – APROBACIÓN INICIAL DE LAS PLANTILLAS ORGÁNICAS DEL AYUNTAMIENTO Y DEL ORGANISMO AUTÓNOMO ANDRA MARI PARA EL AÑO 2021.

A la vista de la documentación que obra en

5.) Behin betiko onetsi ondotik, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

6.) Behin betiko onetsi eta hogeita hamar eguneko epean, plantilla organikoen eta lanpostuen zerrenden kopiak Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusira bidaliko dira.

4.-2021.URTERAKO HIRILURREN ETA LANDALURREN GAINEKO KONTRIBUZIOAREN KARGA-TASA.

2020ko maiatzaren 28an egindako Osoko Bilkuran erabaki zen Lesakako balorazio-txostenaren berrikuspena onartzea eta hori jendaurrean jartzea.

2020ko azaroaren 12an Batzorde Mistoa bildu zen. Batzorde horrek jendaurreko informazio-aldian planteatutako alegazioak ebatzi zituen, balorazio-txostenaren proiektuaren behin betiko edukia finkatu zuen eta Nafarroako Foru Ogasunari onartzeko proposamen loteslea egin zion.

Nafarroako Foru Ogasuneko Lurralde Aberastasunaren eta Ondare Zergen Zerbitzuko zuzendariaren azaroaren 17ko 43/2020 ebazpenaren bidez onartu zen balorazio-txostenaren berriskupena.

Hori dela eta, Osoko Bilkurak, aho bate, erabakitzen da:

1.) 2021. urteko lurraren gaineko Hirilurreko eta Landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko, karga-tasa hau onestea: %0,25, Nafarroako Foru Ogasuneko Lurralde Aberastasunaren eta Ondare Zergen Zerbitzuko zuzendariaren azaroaren 17ko 43/2020 ebazpenaren bidez onartutako balorazio-txostenaren berrikuspenaren balioen arabera eta

5.) Que, tras su aprobación definitiva, sean publicadas en el Boletín Oficial de Navarra.

6.) Que en el plazo de treinta días tras dicha aprobación definitiva, se envíen copian de las plantillas orgánicas y de las relaciones de puestos de trabajo a la Dirección General de Administración Local del Gobierno de Navarra.

4.-TIPO DE GRAVAMEN DE LA CONTRIBUCION URBANA Y RUSTICA PARA EL AÑO 2021.

En sesión celebrada el día 28 de mayo de 2020 se acordó aprobar la revisión de la Ponencia de Valoración de Lesaka y someter la misma a información pública.

El día 12 de noviembre de 2020 se reúne la Comisión Mixta. La misma resuelve las alegaciones planteadas en el periodo de información pública, fija el contenido definitivo del proyecto de la ponencia de valoración y formula propuesta vinculante de aprobación a la Hacienda Foral de Navarra.

Mediante la resolución 43/2020, de 17 de noviembre, del Director del Servicio de Riqueza Territorial y Tributos Patrimoniales de la Hacienda Foral de Navarra se aprueba la revisión de la ponencia de valoración.

Por lo que, el Pleno, por unanimidad, acuerda:

1.)–Fijar para el año 2021 el 0,25% el tipo de gravamen para la exacción de la Contribución Urbana y de la Contribución Rústica, conforme a los valores de la revisión de la ponencia de valoración aprobada por la resolución 43/2020, de 17 de noviembre, del Director del Servicio de Riqueza Territorial y Tributos Patrimoniales de la Hacienda Foral de Navarra y siempre que las

ikusita, EH Bilduko sei zinegotzien aldeko botoarekin eta Geroa Bai-ko bost zinegotzien abstenzioarekin, erabakitzen da:

1.) Hasiera batean onestea 2021. urterako Udaleko eta Andra Mari erakunde autonomoko plantilla organikoak, 1993ko abuztuaren 30eko 251/1993 zenbakiko Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 19. artikuluan xedatutakoa betez.

2.) Estatutu horren 20. artikuluan ezarritakoari jarraituz, 2020ko abenduaren 31n bi entitate horien zerbitzura dauden funtzionario eta lan-kontratudun langile finkoen zerrendak prestatzea.

3.) Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017ko zenbakiko Foru Dekretuak xedatzen duen gisan, euskaraz jakitea baldintza berariazkoa duten lanpostuak zein diren ezartzea, horietan sartzeko gaitasuna frogatu beharko baita.

4.) Udal Idazkaritzan espedientea ikusgai edukitzea hamabortz egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki-oholean argitaratu ondotik, herritarrek edota interesdunek aztertu eta bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Erreklamaziorik egiten ez bada, plantilla organikoak behin betiko onetsitzat joko dira, jendaurrean erakusteko aldia igaro ondotik.

el expediente, se debate el asunto y finalizado el mismo, con el voto a favor de los seis concejales de EH Bildu y la abstención de los cinco concejales de Geroa Bai , se acuerda:

1.) Aprobar inicialmente las Plantillas Orgánicas del Ayuntamiento y del Organismo Autónomo Andra Mari para el año 2021, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 19 del Texto Refundido del Estatuto de Personal al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra, aprobado mediante Decreto Foral Legislativo num. 251/1993, de 30 de agosto de 1993.

2.) Elaborar, conforme a lo establecido por el art. 20 del citado Estatuto, las relaciones de funcionarios y personal laboral fijo al servicio de ambas entidades, con fecha 31 de diciembre de 2020.

3.) Establecer, tal y como dispone el Decreto Foral 103/2017, que regula el uso del euskera en las Administraciones Publicas de Navarra, sus organismos públicos y entidades de derecho público dependientes, los puestos de trabajo en los que el conocimiento del vascuence constituirá requisito específico que deberá acreditarse para poder acceder a los mismos.

4.) Someter el expediente a información pública en la Secretaría municipal, por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de edictos del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinarlo y formular las alegaciones que estimen pertinentes.

Si no se formulasen reclamaciones, las plantillas orgánicas se entenderán aprobadas definitivamente, una vez transcurrido el periodo de exposición pública establecido.

LESAKAKO UDALA | Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (Nafarroa) | Tel. 948 637 005 | udala@lesaka.eus | www.lesaka.eus

horiek, beti ere, katastroan sartzen badira alkatetzaren ebazpen bidez, Nafarroako Zerga Ogasunak hurrengo urteko otsailaren 28a baino lehen jakinarazi eta interesdunei banan-banan jakinarazi ondoren.

2.) Erabaki hau 30 egunez jendaurrean ikusgai edukitzea, aldez aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki-taulan iragarrita, herritarrek eta legezko interesdunek espedientea aztertu ahal dezaten.

3.) Aitzineko puntuan aipatu den epean erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik ez badago, zerga-tasa hori behin betiko onetsitzat emanen da. Kasu horretan, lege-ondorioak izan ditzan, egoera hori, behin betiko testuarekin batean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

mismas se incorporen al catastro mediante resolución de la alcaldía, previa comunicación de la Hacienda Tributaria de Navarra con anterioridad al día 28 de febrero del año siguiente y su notificación individual a los interesados.

2.)- Exponer al público dicho acuerdo, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos e interesados legítimos puedan examinar el expediente.

3.)- Si no hubiera reclamaciones, reparos u observaciones, una vez transcurrido el plazo indicado en el punto anterior, el tipo impositivo citado se entenderá aprobado definitivamente. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia en el Boletín Oficial de Navarra.

5.-2021EKO LAN EGUTEGIAREN ONESPENA.

2021eko lan-egutegia aurkeztu da, onets dadin. Bertan jasotzen da, orobat, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren laneko jaiegunen egutegi ofiziala, honako arau hau oinarri hartuta: maiatzaren 18ko 217/2020 Ebazpena, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren 2021eko asteguneko jaien egutegi ofiziala ezartzen duena (2020ko 120. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, ekainaren 4koa).

Aho batez, erabakitzen da:

1) Onestea 2021. urterako lan-egutegia.

2.) Baliogabeak izanen dira, epeak

5.-APROBACION DEL CALENDARIO LABORAL DEL AÑO 2021.

Visto el calendario laboral del año 2021, que a su vez recoge el calendario oficial de fiestas laborales, con carácter retribuido y no recuperable en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra, según se establece en la Resolución 217/2020, de 18 de mayo, de la Directora General de Política de Empresa, Proyección Internacional y Trabajo, por la que se procede al establecimiento del calendario oficial de fiestas laborales para el año 2021 con carácter retribuido y no recuperable en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra (Boletín Oficial de Navarra Número 120 de 4 de junio de 2020).

Por unanimidad, SE ACUERDA:

1.) Aprobar el calendario laboral para el año 2021.

2.) Declarar inhábiles a efectos del

LESAKAKO UDALA | Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (Nafarroa) | Tel. 948 637 005 | udala@lesaka.eus | www.lesaka.eus

kontatzeari dagokionez, larunbat eta igande guztiak, eta jaieguntzat jotako egunak.

3.) Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-taulan argitaratzea.

cómputo de plazos todos los sábados, domingos y los días declarados como festivos.

3.) Proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

6.-ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA: HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik Administrazio Elektronikoa arautzen duen ordenantza, herritarrek herri-administrazioekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko duten eskubide orokorra aitortzeko.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Aho batez, erabakitzen da:

1.) Administrazio Elektronikoa arautzen duen ordenantza hasiera batez onartzea.

2.) Aipatutako aldaketa jendaurrean jartzea, Onarpen-erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta erakundearen iragarki-oholean iragarri ondoren, jendaurrean jarriko da, auzotar eta interesdun legitimoek espedientea aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egin ahal izateko gutxienez hogeita hamar eguneko epean. Bere kasuan, aurkeztutako erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak ebaztea, Udalak behin betiko onartzea.Hala ere, hasierako onespenaren erabakia behin betikoa izango da erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik egin ez bada. Kasu horretan, ondorio juridikoak izateko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, behin betiko testuarekin batera.

6.-APROBACION INICIAL DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LA ADMINISTRACION ELECTRONICA.

Vista la ordenanza reguladora de la Administración electrónica, con el fin de reconocer un derecho general de la ciudadanía a relacionarse por medios electrónicos con las Administraciones Públicas.

De conformidad al artículo 325 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra.

Por unanimidad, se acuerda:

1.) Aprobar inicialmente la Ordenanza reguladora de la Administración electrónica.

2.) Someterla a información pública, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo mínimo de treinta días en que los vecinos e interesados legítimos podrán examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones. En su caso, la resolución de las reclamaciones, reparos u observaciones presentadas, y aprobación definitiva por el Pleno. No obstante, el acuerdo de aprobación inicial pasará a ser definitivo en el caso de que no se hubiesen formulado reclamaciones, reparos u observaciones. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, deberá publicarse tal circunstancia, junto con el texto definitivo, en el Boletín Oficial de Navarra.

7.- JOXE TELLETXEA OTXOTEKO JAUNAK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUA.

2020ko azaroaren 30ean (3815. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) aurkezturiko eskaera aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.)Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Joxe Telletxea Otxoteko jaunak eginiko eskaera, honako aprobetxamendu hau egiteko: haritz amerikar bat, Frain parajean. Moztu behar den azalera 5,00 m2 – koa da. Katastroko 3. poligonoko 654. partzelako K azpipartzeleri dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia Oihapart/2020/26).

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio. Lanetarako kamioiak edo bertzelako makinaria astuna erabiliko ez duten partikularrek ez dute fidantza hau jarri beharko, beti ere hau horrela izanen dela eta sor ditzaketen kalteez kargu eginen direla idatziz ziurtatzen badute. Hau ez betetzea arau-haustea kontsideratua izanen da eta ondorengo isuna jarriko zaio: eskatutako metro kubiko bakoitzeko 3 €, eta gutxieneko isuna 300 €-koa izanen da, gainera sortu ditzakeen kalteez kargu eginen delarik baimen eskatzailea.

3.) Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio hariek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duen

7.-APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR D. JOXE TELLETXEA OTXOTEKO.

Examinada la instancia presentada con fecha 30 de noviembre de 2020 (entrada nº 3815 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1.) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por don Joxe Telletxea Otxoteko para realizar una corta de un roble americano en el paraje de Frain. La superficie de corta es de 5,00 m^2. Corresponde a la subparcela K de la parcela 654 del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2020/26).

2.) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicarlo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Para ello tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será indicado. Los particulares que no vayan a utilizar camiones o maquinaria pesada para los trabajos a realizar, no tendrán que depositar esta fianza, siempre que manifiesten por escrito que esto será así y que se harán cargo de los daños que pudieran producirse. No cumplir con esto se considerará infracción de la norma, y se aplicará la siguiente multa: 3 € por cada metro cúbico solicitado, siendo el mínimo de la multa 300 €, y haciéndose cargo del resto de los daños que pudiera ocasionar.

3.) Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se les dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo del

LESAKAKO UDALA | Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (Nafarroa) | Tel. 948 637 005 | udala@lesaka.eus | www.lesaka.eus

jabearen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

4.) Pista berriak irekitzeko Udaleko berariazko baimena behar du.

5.) Eskatzaileari jakinaraztea, finka komunala ageri dela udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

propietario del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

4.) La apertura de nuevas pistas requiere de autorización expresa del Ayuntamiento.

5.) Comunicarle que la finca figura como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de la misma.

8.-ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda (527/2020 ebazpenetik 566/2020 ebazpena arte). Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

Ondoren, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikuluak xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik planteatu.

8.- CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA.

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía, desde la última sesión hasta hoy (desde la nº 527/2020 hasta la nº 566/2020). A los que no lo tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se plantea cuestión alguna.

9.- OSOKO BILKURAREN KONTROL-JARDUERA.ESKARI ETA GALDERAK.

Ez dira izan.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak eta hogeita hamar minutuak direla, eta

9.- ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO.RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se formulan.

Siendo las diecinueve horas y treinta minutos del día de la fecha y no habiendo más

eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretaria, certifico.



LESAKAKO UDALA | Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (Nafarroa) | Tel. 948 637 005 | udala@lesaka.eus | www.lesaka.eus